

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2023ko abendua

Aurkibidea

1. BPGaren hazkundera
2. Inflazioa
3. Kanpo merkataritza
4. Enpresarien konfiantza
5. Sentimendu ekonomikoa
6. Batzordearen aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko %1,6 hazi zen 2023ko hirugarren hiruhilekoan.

Ekonomiaren hiru sektore nagusiek bilakaera positiboa izan zuten.

2. Inflazioak igoera moteldu zuen urrian.

Indize orokorra %3,5era jaitsi zen eta azpiko inflazioa, berriaz, %5,4ra.

3. EAetik atzerrira esportatutakoa hazi egin da lehen bederatzi hilekoetan.

Aurtengo lehen hilekoetan, batez beste, %0,2ko hazkundera jaso da.

4. EAEko enpresek konfiantza zertxobait hobetu dute .

Laboral Kutxaren inkestak ezkortasuna erakusten du oraindik laugarren hiruhilekoari begira.

5. Euroaren eremuko PMI konposatua pixka bat hobetu zen azaroan.

Hala ere, bai manufakturak bai zerbitzuak uzkurdua eremuan murgilduta daude.

6. Europako Batzordeak aurreikusten du hazkundera bizkortu egingo dela 2025ean.


Aurtengo geldialdiaren ondoren, hobekuntza aurreikusten da hurrengo bietarako.

EAEko ekonomia %1,6 hazi zen 2023ko hirugarren hiruhilekoan.

BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

3. HIRUHILEKOA
URTE ARTEKO TASA
%1,6




EAEko ekonomia %1,6 hazi zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan, Eustatek argitaratutako datuen arabera. Tasa hori aurreko hiruhilekoan erregistratutakoa baino hamarren bat handiagoa da, eta 2022ko hastapenetan hasi zuen beheranzko bidea egonkortzeaz gain, Euskadik nazioarteko turbulentzien aurrean duen erresilientzia ere islatzen da, Eurogunean agertzen den uzkuertzeko joerari ihes egiten baitio (%0,1 baino ez zen hazi aldi horretan).

Gehikuntza horren oinarri nagusia barne eskaria izan zen. Kontsumo pribatuaren hazkundera eragilea, turismoan lortutako datu historikoei esker. Inbertsioak ere goranzko joerari eutsi dio, interes tasek gora egin duten arren. Hobekuntza horiek EAEko esportazioen beherakadari aurre egin diote, inportazioen uzkuerdura baino txikiagoa izan baita, eta, horri esker, kanpo sektoreak hamarrenen bat ekarri dio hazkunderari.


KONTSUMO PRIBATUA

Urte arteko aldakuntza tasa




KONTSUMO PUBLIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa




INBERTSIOIA

Urte arteko aldakuntza tasa




ESPORTAZIOAK

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA


Urte arteko aldakuntza tasa



Eskaintzaren ikuspegitik, EAEko enpresa sareak eutsi egin dio Europaren hozteari, eta ekonomiaren hiru sektore nagusiek hazkunde positiboekin ekin zieten berriro. Kasu honetan, eraikuntzaren sektorea izan zen dinamikoena, %2,9ko hazkundearekin, eta ondoren zerbitzuak (%2,0), non hiru adar nagusiek ere gora egin zuten modu positiboan. Garrantzi berezia hartzen du industriaren susperraldiak (%0,2), aurreko hiruhilekoan lehen aldiz egin baitzuen atzera pandemiaren gerotik. Manufaktura sektorearen gorakada dago hobekuntza horren atzean.


INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

INFLAZIOA

Inflazioak igoera moteldu zuen urrian

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



KPIak %3,5ean amaitu zuen urria EAEn, aurreko hilean baino hamarren bat beherago, eta, beraz, joan den uztailean hasitako goranzko joera gelditu egin zen. Bilakaera hori, batez ere, energiaren jaitzierak eragin zuen, eta, neurri txikiagoan, elikagaien igoera apalagoak; izan ere, gorakada moteldu arren, inflazio orokorraren tasa ia hirukoiztu egin zen elikagaien atalean.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2023ko urria
Inflazio osoa	3,1	8,1	3,5
Azpiko inflazioa	1,0	5,1	5,4
- Elikagai landuak	1,4	10,2	10,6
- Industria ondasunak	1,0	4,7	3,1
- Zerbitzuak	0,7	3,3	4,4
Hondar inflazioa	12,1	20,0	-3,8
- Landu gabeko janariak	2,6	10,8	5,4
- Energia	21,3	28,2	-11,3


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT PETROLIO UPELAREN PREZIOA


Hileko batez bestekoa. Dolarrak upeleko



Izan ere, duela urtebete energia eta erregaien etengabeko garestitzea izan zen inflazioaren gorakada biziaren erantzulea, baina azken hilekoan nabarmen jaitsi dira beren prezioak. Beherakada horien atzean Brent petrolio upelearen prezioaren jaitsiera dago, 85 dolarren bueltan kokatu baita orain, irailean 100 dolarretara hurbildu ondoren.

TTF GAS NATURALAREN PREZIOA

Hileko batez bestekoa. Euro MWh-ko



Elikagaiei dagokienez, talde horrek bi zenbakietatik behera finkatu zuen bere igoera, baina guztien artean talde inflazionistena izaten jarraitu zuen, lehengaien prezioak behera egin duen testuinguru batean. Hala ere, lehorteak eragindako eskasiak eragin negatiboa izan du talde horretan, eta horrek inflazio presio nabarmenak eragin zituen.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2023ko urria

	Euskadi	Espania	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	3,5	3,5	2,9
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	9,0	9,5	7,5
Edari alkoholdunak eta tabakoa	7,3	7,6	7,1
Jantziak eta oinetakoak	1,5	1,3	2,6
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-8,3	-7,7	-6,1
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	4,5	3,3	3,9
Osasuna	2,4	2,2	2,9
Garraioa	2,2	1,4	2,3
Komunikazioak	3,4	3,3	-0,2
Aisia eta kultura	4,2	3,8	4,9
Hezkuntza	1,9	2,7	3,9
Jatetxeak eta hotelak	5,7	6,3	6,7
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	4,9	4,4	4,7

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.




EAetik atzerrira esportatutakoa hazi egin da lehen bederatzi hilekoetan

ESPORTAZIOAK GUZTIRA

Milioi euro

ESPORTAZIOAK GUZTIRA.
URTARRILETIK IRAILERA PILATUA
%0,2




Ekonomia moteldu egin den arren, EAeko esportazioak urtarrila eta iraila bitartean hazi egin ziren, errekor mailetaraino. Hain zuzen ere, Eustatek argitaratutako azken datuen arabera, euskal enpresek 24.299 milioi euro balio zuten produktuak saldu zituzten, hau da, aurreko urteko aldi berean baino %0,2 gehiago. Hala eta guztiz ere, metatutako datu ona gorabehera, ez da oso litekeena 2022an balantze gisa lortutako salmenten 32.500 milioi euroko muga historikora iristea. Izan ere, lehen

hiru hilabeteetan %20tik gorako hazkundeekin urtea ondo hasi ondoren, salmentek 2022an erregistratutakoa baino erritmo apalagoan eboluzionatu dute, eta, horren ondorioz, guztizko esportazioak murriztu egin dira, apirilko -%9,1etik iraileko -%2,2ra. Beherakadaren erritmoa arindu bada ere, ez da aurreikusten esportazioek gora egingo dutenik urte amaierarako, nahiz eta 30.000 milioi eurotik gorakoak izan daitezkeen.

ESPORTAZIO EZ ENERGETIKOAK.

URTARRILETIK IRAILERA PILATUA


Milioi euro



ENERGIAKO ESPORTAZIOAK.

URTARRILETIK IRAILERA PILATUA

Milioi euro



ESPORTAZIOAK HELMUGAREN ARABERA. URTARRILETIK IRAILERA PILATUA

Herraldea	%
Alemania	16,3
Frantzia	15,0
AEB	7,9
Erresuma Batua	6,3
Italia	5,6
Belgika	4,6
Portugal	4,3
Herbehereak	4,3
Polonia	2,5

ESPORTAZIOEN BANAKETA. URTARRILETIK IRAILERA PILATUA


Arantzel taldea	%
Ekipamendu ondasunak	46,9
Makinak eta aparatuek	18,4
Garraio materiala	28,4
Ohiko metalak eta manuf.	21,9
Plastikoa eta kautxua	7,3
Nekazaritzako produktuak	6,7
Produktu mine.eta energetikoak	5,3
Produktu kimikoak	3,1
Papera	2,4

Zehatzago esanda, esportazioen gorakadak automobilgintzan (%18,9), makinetan eta aparatuetan (%9,3) eta kautxuaren sektorean (%7,7), batez ere pneumatikoetan, izan zuen oinarri nagusia, salmenta energetikoen jaitsiera (-%44,2) konpentsatu baitzuten, azken hilabeteetan petrolio gordinaren prezioaren beherakadarekin lotuta. Salmenta horien helmuga nagusiei dagokienez, Alemaniak eta Frantziak EAEko esportazioen atzerrirako helmuga nagusia izaten jarraitu zuten, ondoren

AEBak eta Erresuma Batua kokatzen direlarik. EAEko inportazioek ere bilakaera ona izan zuten, 20.610 milioi eurotik gorako kopurura iritsi baitziren, energiaz bestelako inportazioek bultzatuta, 2022an lortutako maximotik oso gertu geratuta. Horren guztiaren ondorioz, guztizko saldoa 3.688 milioi eurotik gorakoa izan zen, eta energiari gabeko saldoa, berriz, 7.748 milioi eurotik gorakoa izan zen, aurrekaririk gabeko balioa. Azkenik, estaldura tasa %117,9koa izan zen.

INPORTAZIOAK GUZTIRA URTARRILETIK IRAILERA PILATUA


Milioi euro



Iturria: Eustat

SALDOA GUZTIRA URTARRILETIK IRAILERA PILATUA

Milioi euro





ENPRESARIEN KONFIANTZA


EAEko enpresek konfiantza zertxobait hobetu dute

ENPRESEN KONFIANTZAREN INDIZEA.

EUSKADI

2023ko 4. HIRUHILEKOA

49,5




Laboral Kutxaren arabera, EAEko enpresen konfiantza indizea puntu erdi bat hobetu da aurtengo azken hiruhilekoari begira. Hala ere, lortutako mailak nolabaiteko ezkortasuna adierazten du etorkizunari buruz, inguruko beste ekonomia batzuek partekatzen duten ezkortasuna. Hain zuzen ere, inguruko egoera kezkarria da EAEko enpresentzat. Hori horrela izanda, erantzunen %8,8k soilik uste du inguruak hobera egingo duela hirugarren hiruhilekoarekin

alderatuta, eta %34,1ek, ordea, kontrakoa uste du.

Aurrekoa gorabehera, gehiago dira fakturazioa hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta hobetuko dela uste dutenak kontrakoa uste dutenak baino (%27,3 eta %19,5, hurrenez hurren). Jarduerari dagokionez, ia ez dago aldaketarik aurreko hiruhilekoarekin alderatuta eta oraindik ezkortasun txiki bat nabari da, enpresa gehiagok uste baitute okerrera egingo duela.


FAKTURAZIO IGURIKIMENAK

Indizea




JARDUERA IGURIKIMENAK

Indizea




ESKARIEN IGURIKIMENAK

Indizea




PREZIOEN IGURIKIMENAK

Indizea



ERRENTAGARRITASUN IGURIKIMENAK

Indizea




Eskaerei buruzko igurikimenak hobetu egin dira, eta EAeko enpresen baikortasun erlatiboa erakusten dute. Zehazki, %23,4k erantzun du eskaeren sarrerak gora egingo duela, eta %20,0k soilik uste du murriztu egingo dela. Oraindik ere gehiengo dira (%56,6) hirugarren hiruhilekoaren antzeko mailan jarraituko duela pentsatzen dutenak.

Enpleguari dagokionez, gehienek (%80,0) plantillei eustea erabaki dute, eta gainerako enpresek igoe-
ra espero dutenen (%9,3) eta beherakada aurrei-
kusten dutenen (%10,7) artean banatzen dira. Az-
kenik, gehienek ere uste dute prezioak orangoen
antzeko balioetan mantenduko direla, baina bat-
zuek (%16,1) uste dute gehiago igoko direla.


ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK

Indizea



INBERTSIOEN IGURIKIMENAK

Indizea



Iturria: Laboral Kutxa.



PMI KONPOSATUA


Euroaren eremuko PMI konposatua pixka bat hobetu zen azaroan

Azaroan, euroguneko PMIa sei hamarren handitu zen eta 47,1ean kokatu zen, oraindik ere ekonomiaren uzkurdura adierazten duen eremuan. Hilabete horretan, manufakturek puntu bat baino gehixeago egin zuten hobera, 44,3ko balioarekin. Datu horrek adierazten du jardueraren beharakada nabarmena dela, nahiz eta datua azken sei hilabeteetako altuena izan. Bestalde, zerbitzuen adierazlea 48,2 puntura iritsi zen.


Ekonomiaren ahulezia eskaera berrien faltatik dator, nahiz eta azaroan erregistratu zen jaitsiera azken lau hilabeteetako txikiena izan zen. Beste aldetik, adierazi behar da ia hiru urtean lehen aldiz enpresek beren plantillak murriztu dituztela, oso modu txikian egin bazuten ere. Enpresen konfiantza apur bat hobetu zen manufakturetan, baina zerbitzuetako enpresen ezkortasunak konpentsatu zuen.

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2023KO AZAROA
47,1




MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA



ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA




PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




Herrialdeka egindako azterketan ikus daitekeenez, Alemaniak hobekuntza txiki bat izan zuen bere datuetan, eta 47,1ean kokatu zen, industriaren gorakadari esker. Frantziak, ordea, hamarren bat egin zuen okerrera, eta 44,5ean dago. Bi kasuetan, jarduera mailek ahultasun handia erakusten dute, euroaren eremuko gainerako herrialdeek partekatzen ez dutena.

Eremu ekonomiko horretatik kanpo, Erresuma Batuak puntu bat baino gehiago egin du gora, eta 50,1ean dago orain, ekonomiaren geldialdia adierazten duen puntu batean. Antzeko zerbait gertatzen da Japoniarekin (50,0), puntu erdi jaitsi baita. Azkenik, AEBek tonu positiboari, baina ez oso hedakorrari(50,7), eutsi zioten.


PMI KONPOSATUA. FRANTZIA



PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA




PMI KONPOSATUA. AEB



Iturria: Markit

PMI KONPOSATUA. JAPONIA




EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPENAK

Europako Batzordeak aurreikusten du hazkundera bizkortu egingo dela 2025ean

EUROPAR BATASUNAREN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Inflazioaren ondorioengatik 2023an Europar Batasuneko ekonomiek nolabaiteko geldialdia nozitu dutela erakutsi eta gero, Europako Batzordeak aurreratu du datorren urteko hazkundera, nahiz eta aurtengoa baino handiagoa izan, neurritsua izaten jarraituko duela. Alemaniako eta Austriako ekonomiak, energia prezioen igoeraren arrisku handiagoa dutenak, uzkurto egingo dira eta tonu ahulari eutsiko diote datozen bi urteetan. Europako ekonomia guztietan, inbertsioa izango da 2023an barne eskariari eutsiko dion osagaia, prezioen igoerak kontsumoa kaltetuko duelako.

BPG. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

%	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2023	2024	2025	2023	2024
Europar Batasuna	0,6	1,3	1,7	-0,4	-0,4
Eurogunea	0,6	1,2	1,6	-0,5	-0,4
Alemania	-0,3	0,8	1,2	-0,5	-0,6
Belgika	1,4	1,4	1,5	0,2	0,0
Espania	2,4	1,7	2,0	0,5	-0,3
Frantzia	1,0	1,2	1,4	0,3	-0,2
Italia	0,7	0,9	1,2	-0,5	-0,2
Herbehereak	0,6	1,1	1,7	-1,2	-0,1
Portugal	2,2	1,3	1,8	-0,2	-0,5
Irlanda	-0,9	3,0	3,4	-6,4	-2,0
Grezia	2,4	2,3	2,2	0,0	0,4
Austria	-0,5	1,0	1,3	-0,9	-0,6


ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2024an, joerak aldatuko dira eta kontsumo pribatuak bere garrantzi erlatiboa berreskuratuko du, ekonomia osoaren hazkundearen erdia baino gehiago ekarriz. Hori, funtsean, euroguneko inflazioa motelduko delako gertatuko da, 2023an jaso zuen %6,5etik 2024ko %3,5era eta gero 2025eko %2,4ra jaitsiko baita. Aldi berean, langile bakoitzeko ordainsariak gehiago igoko dira. Enplegua ez da hain modu intentsiboan haziko datozen bi urteetan, eta langabezia tasak egonkor mantenduko dira egungo mailetan.

LANGABEZIA TASA. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

%	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2023	2024	2025	2023	2024
Europar Batasuna	6,0	6,0	5,9	-0,2	-0,1
Eurogunea	6,6	6,6	6,4	-0,2	-0,2
Alemania	3,1	3,2	3,2	-0,1	0,1
Belgika	5,6	5,6	5,4	-0,2	-0,1
Espainia	12,1	11,6	11,1	-0,6	-0,8
Frantzia	7,2	7,4	7,5	-0,2	-0,1
Italia	7,6	7,4	7,3	-0,2	-0,3
Herbehereak	3,6	3,9	3,9	-0,2	0,0
Portugal	6,5	6,5	6,4	0,0	0,2
Irlanda	4,2	4,2	4,3	-0,1	-0,1
Grezia	11,4	10,7	9,9	-0,8	-1,1
Austria	5,3	5,4	5,3	-0,4	-0,4

Iturria: Europar Batzordea eta Eurostat.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022		2023		
			III	IV	I	II	III
BPG	6,0	5,4	4,8	3,4	2,3	1,5	1,6
Barneko azken kontsumoa	5,2	6,0	6,2	4,4	1,9	1,5	1,1
Familien kontsumoa	5,8	7,7	8,0	5,1	1,7	1,3	1,5
Administrazioaren kontsumoa	3,2	0,7	0,8	2,2	2,4	2,0	-0,6
Kapital eraketa gordina	5,9	8,7	9,9	4,8	1,6	2,5	2,6
Barne eskaria	5,3	6,7	7,1	4,5	1,8	1,7	1,4
Esportazioak	10,7	17,1	16,8	8,6	6,3	-2,5	-0,6
Inportazioak	9,4	18,7	20,6	10,2	5,5	-2,0	-0,7
Lehen arloa	15,1	-8,7	-2,3	-7,3	2,1	-6,7	-2,3
Industria eta energia	5,3	4,7	3,1	2,4	1,1	-0,5	0,2
Eraikuntza	1,0	6,7	9,0	6,0	0,9	4,2	2,9
Zerbitzuak	6,6	5,9	5,2	3,7	2,9	2,1	2,0
Balio erantsi gordina	6,1	5,5	4,9	3,4	2,4	1,5	1,5
Ekoiizkinen gaineko zerga garbiak	5,2	4,6	4,2	3,1	1,6	1,3	1,6
Enplegua	2,7	2,8	2,3	1,8	1,5	1,5	1,6

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2023		2023	2024				2024
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	1,7	1,4	1,7	1,5	1,7	2,3	2,9	2,1
Barneko azken kontsumoa	2,2	1,4	1,8	1,6	0,9	1,7	2,4	1,7
Familien kontsumoa	2,5	1,5	1,8	1,6	0,6	1,9	2,7	1,7
Administrazioaren kontsumoa	1,1	1,0	1,6	1,6	1,9	1,0	1,7	1,5
Kapital eraketa gordina	4,6	2,2	2,7	1,8	3,8	5,5	5,9	4,2
Barne eskariaren ekarpena	3,3	1,3	2,1	1,3	1,5	3,0	3,7	2,4
Kanpo eskariaren ekarpena	-1,5	0,1	-0,3	0,2	0,1	-0,7	-0,9	-0,3
Lehen arloa	-8,6	5,6	-2,2	6,3	7,8	5,3	5,9	6,3
Industria	2,6	1,5	1,2	1,5	1,6	2,2	0,7	1,5
Eraikuntza	0,7	0,0	1,5	0,9	2,0	2,7	3,1	2,2
Zerbitzuak	1,7	1,3	2,0	1,3	1,6	2,4	3,5	2,2
Balio erantsi gordina	1,8	1,3	1,7	1,4	1,6	2,4	2,9	2,1
Ekoiizkinen gaineko zerga garbiak	1,9	2,6	1,8	2,3	1,7	1,5	2,9	2,1
Lanaldi osoko lanpostuak	1,1	1,2	1,3	1,3	1,1	1,8	2,1	1,6
Landunak (BJA)	0,8	0,5	0,7	0,8	0,4	0,8	1,2	0,8

EAEKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024		2023	2024
BBVA	1,9	2,2	Laboral kutxa	1,7	—
Hispalink (BPGaren aldakuntza)	1,7	2,5	Confebask	1,5	—
Ceprede	1,7	1,8	Funcas	1,4	—

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022		2023		
			III	IV	I	II	III
BPG	6,4	5,8	5,4	3,8	4,1	2,0	1,8
Kontsumo pribatua	7,2	4,8	5,4	2,2	2,6	2,2	1,0
Kontsumo publikoa	3,4	-0,2	-0,6	1,6	1,2	4,1	3,3
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,8	2,4	4,0	-0,4	-0,1	1,7	0,6
- Aktibo finko materialak	1,7	2,1	3,9	-0,1	0,3	2,1	0,7
- Eraikuntzan	0,4	2,6	3,7	1,2	3,4	3,8	1,8
- Ekipamendu ondasunetan	4,4	1,9	4,9	-2,0	-5,0	-1,4	-1,7
- Jabetza intelektualaren produktuak	7,7	3,8	4,6	-1,9	-2,1	0,3	0,6
Nazio eskaria (ekarpena)	6,6	2,9	3,0	0,7	1,3	2,2	1,7
Esportazioak	13,5	15,2	12,9	8,7	9,4	-1,1	-2,4
Inportazioak	14,9	7,0	6,5	0,1	1,8	-0,5	-2,9

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024		2023	2024
UniCredit	2,6	1,4	Grupo Santander	2,3	1,4
HSBC	2,5	1,1	S&P Global Market Intel	2,3	0,4
CEPREDE	2,5	2,4	Societe Generale CIB	2,3	1,2
BBVA	2,4	1,8	UBS	2,2	1,5
La Caixa	2,4	1,4	Fitch Ratings	2,2	1,7
Citigroup	2,4	0,7	Inst. Estud. Económicos	2,2	1,5
CEOE	2,4	1,4	S&P Global Ratings	2,1	1,6
Econ Intelligence Unit	2,4	1,2	Batez bestekoa	2,3	1,3
Rabobank	2,4	1,5	Gobernua (2023-10)	2,4	2,0
Barclays	2,4	0,9	Espainiako Bankua (2023-10)	2,3	1,8
FUNCAS	2,4	1,5	Europar Batzordea (2023-11)	2,4	1,7
Moody's Analytics	2,4	1,2	NDF (2023-10)	2,5	1,7
Oxford Economics	2,3	1,2	ELGA (2023-09)	2,3	1,9

Iturria: Consensus Forecast.

ESTADÍSTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022		2023		
			III	IV	I	II	III
AEB	5,9	1,9	1,7	0,7	1,7	2,4	3,0
Txina	8,1	3,0	3,9	2,9	4,5	6,3	4,9
Japonia	2,1	1,0	1,5	0,4	1,9	1,9	1,4
Kanada	5,0	3,4	3,8	2,1	2,1	1,1	0,6
Europar Batasuna	6,0	3,4	2,5	1,7	1,1	0,4	0,1
Eurogunea	5,9	3,4	2,4	1,8	1,2	0,5	0,1
Alemania	3,2	1,8	1,2	0,8	-0,2	0,1	-0,4
Frantzia	6,4	2,5	1,3	0,8	1,0	1,1	0,7
Erresuma Batua	8,7	4,3	2,1	0,7	0,5	0,6	0,6
Italia	8,3	3,7	2,6	1,6	2,1	0,3	0,0
Herbehereak	6,2	4,3	3,1	3,1	2,1	-0,1	-0,4

Iturria: Eurostat eta ELGA.

CONSENSUS FORECAST. 2023KO AZAROA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2023	2024	2023	2024	2023	2024
AEB	2,4	1,1	4,2	2,7	3,7	4,3
Japonia	1,9	1,0	3,2	2,2	2,6	2,5
Kanada	1,1	0,6	3,9	2,6	5,4	6,3
Europar Batasuna	0,5	1,0	6,0	2,9	—	—
Eurogunea	0,5	0,6	5,5	2,6	6,5	6,7
Alemania	-0,4	0,5	6,0	2,7	5,6	5,7
Frantzia	0,9	0,8	5,0	2,6	7,1	7,3
Erresuma Batua	0,4	0,2	7,4	3,1	4,2	4,7
Italia	0,7	0,5	5,9	2,5	7,7	7,8
Espainia	2,3	1,3	3,7	3,2	—	—
Herbehereak	0,5	0,8	4,0	2,7	—	—

Iturria: Consensus Forecast.